

Anuntxi Arana

Konkista modernoak

H

ego Dakotan, Mato Paha –Hartz mendixka– santuaren azpian, goi bilera egin zuten iazko agorrilean Ameriketako Nazio autoktonoek eta hara hurbildu ziren bazter guztietako ordezkariak estrategia batua pentsatu zuten beren lur sakratuen begiratzeko.

Beste kontu zahar eta garrantzitsu bat ere aipatu zuten. Aita santuari –eta Anglikar eliza buru den– Ingalaterrako erreginari berriz eskatu zieten deusezta dezaten Amerikaren konkista bermatu zuen bula, alegia, 1493an Alexandro VI.ak ezarri zuen *Inter Caetera*. Dokumentu horretan amerindioak pagano-salbaiak direla adierazten da, eta hori ez zitekeen inondik ere iraingarria izan –basoko paganismoa ez baita hiriko mono-teismoa baino gutxiago, alderantziz agian– ez balute aitzakia hartu lurraren kentzeko beren jabe zilegiei, bulak Mundu berria nola banatu behar zen eta konkistatzaile bakoitzari zer zati egokitzen zitzaion finkatu baitzuen. Eta finkatzen du oraindik ere, ukatu gabe dago-eta.

Jadanik egina zioten eskaera Joan-Paulo II.a zenari 1992an, “Deskubrimendu”aren V. mendeurrena kari aldarrikatu zituztelarik *Herri autoktonoen jende eskubideak* Genevako Nazio Batuen Erakundean; eta geroztik ere behin baino gehiagotan salatu dute deskubrimenduaren printzipioa, herrien arteko bakearen, harmoniaren eta justiziaren kontra zuzen jotzen duelako, lurren lapurreta eta amerindioen genozidioaren justifikatzeko baliatua izan delako.

Aro modernoaren ekarpenak: preseski 1492an hasia zela erakasten ziguten Espainiako eskoletan –Colon Amerikara heldu zen urtean–. Gehienek, ordea, 1453 hautatzen dute, turkoek Konstantinopla hartu eta Bizantzioren konkista bururatu zutenean. Anartean, otomandarren delako tolerantzia zela-eta, beren herrietan egon ziren Anatoliako grekoak, harik eta kasik bostehun urte geroago, Lehen Mundu



GAIZKA IROZ

Gerlan Turkia garaitua izan zela baliatuz, lurraldearen berreskuratzen saiatu ziren arte: orduan bai ohildu zituzten gehienak, eta izugarria izan zen haien exodoa. Arme-niarrena Karlos Zurutzak aipatu zigun astekari honetan apirilean.

Hemen Nafarroaren konkista dugu: Fernando Katolikoak ere bula bat nahi zuenez, Julio II. Aita santua tinkatu zuen, 1512an *Exigit contumacium* eman zion arte.

Eginak egin, konkisten atzera ezina aldarrikatzen dute konkistatzaileek. Nafarroakoen lehentasuna, itxura, Espainiari ahalik eta eratzikien egotea da, erresumaren euskaltasuna egiazta dezakeen edozein ideia edo ekimen oztopotzea. Turkiar batzuek ere zatiketaren eta barne etsaien beldurra ageri dute Benedikto XVI.ak bisita egin dienean; arrangura dira grekoek itzultzeko asmoa dutela, eta

haien bosgarren kolumnatztat daukaten Patriarkatu ortodoxoa kanporatu behar-ko luketela diote, 1453tik hona Istanbul hiri musulmana dela eta sekula ez dela berriz Konstantinopla izango oroitarazteko.

Amerikan, autoktonoek beren lurren parte den mendreana berreskuratu nahi duten bakoitzean, hitzarmen eta itunak alde dituztenean ere, aski da lege txar bat justiziaren eta zuzentasunaren bertan behera botatzeko, eskubide berdintasunaren izenean.

Kaguen el kinto zentenario pegatinak 1992an ezagutu dituztenek badakite inguru hauetan ez diegula inongo zilegitasunik aitortzen konkistatzaileei, hastio ditugula guztiak. Beno, guztiak... nola gerta. Hiru konkista, hiruak garai bertsukoak, eta halere eta salbuespenak salbuespen, Mendebaldekoak eta Ekialdekoak oso modu desberdinez balioztatua gure abertzale giroan.

Zergatik bada? “Historia erabiltzen dun”, erantzuten didate. Baina ez, historiak nau ni erabiltzen. ■

Kaguen el kinto zentenario pegatinak

1992an ezagutu dituztenek badakite

inguru hauetan ez diegula inongo

zilegitasunik aitortzen konkistatzaileei,

hastio ditugula guztiak.

Beno, guztiak...

nola gerta